

KILKERRAREN GISAN

(M.E. Walsh / E. Amurua)

Zenbat aldiz hil ninduten,
Zenbat aldiz hil nintzen
Baina oraindik naiz hemen
Berpizten ari
Eskerrak nahigabeari
Ta aiztodun eskuari
Gaizki hil ninduen horri
Hasteko kantari

**Udan kanta, kilkerraren gisan,
Lurrazpitikan irten ahala
Gerratik bueltan datorren
Iheslea bezala**

Zenbat ezabatu nauten
Ta zenbat desagertu
Nigarrez lurperatu
Bakardadean
Zapia korapilatuz
Ahantzi nuen honela
Aldi bakarra ez zela
Kantuz jarraitzean

Udan kanta...

Zenbat aldiz hil zintuzten
Beti zara berpiztu
Itxaropena bildu
Gau ilunerako
Berdin da itsas sakona
edo ordu iluna
Hemen nago, laguna,
Zuri kantatzeko

Udan kanta...

ZEINEN EDERRA IZANGO DEN

Zetak

**Zeinen ederra izango den
Eguzki izpiak zure itzala belarretan marrazten
Muxu bat Larrunen
Garagardo bat zerura eroritakoen omenez**

Herri txikietako festetan
Esnatuko bagina bihar
Dantzatuko genuke plazetan
Sekula-santan ez bezala

Eta kantu bakoitzean
Utziko genuke eztarria
Azkenengoa bailitzan
Edota denetan lehenengoa

Gu zorionekoak
Gordetako ametsen kutxa irekiak

Zeinen ederra izango den...

Ilobak amona ezagutzean
Haritz bat jaioko da Urbanan
Urteekin ohartuko gara
Betirako biziko zela

Lagun minekin ilunabarra
Eternala bihurtuko da
Xuxurlatuko digu ilargiak
Oraindik denok ez gaudela

Gu zorionekoak
Gordetako ametsen kutxa irekiak

Zeinen ederra izango den...

Zeinen ederra izango den...

LURRA

(Xabier Amuriza-Mixel Ducau)

Lurra da gure alaba
lurra da gure ama
lur ahizpa, lur arreba
lurra gu, lurra gara.
Ez ehortzi gure lurra
gu bait gara lurra bera
Lurra da gure alaba
lurra da gure ama.

Oker goaz aurrera
gure lurra hiltzera,
biziaren sorrera
ez igorri lurpera.
Ez ehortzi gure lurra
gu bait gara lurra bera.
Oker goaz aurrera
gure lurra hiltzera.

**Tribuak, zenbat tribu,
baleak, zenbat bale.**

**Zenbat ur, zenbat
oihan**

zenbat hil behar dira?

**Munduak uler dezan
ezin duela izan.**

Alda zaitezte denak
sentimen eta buru
adimen eta inguru
alda ezazue dena
Ez ehortzi gure lurra
gu bait gara lurra bera.
Adimen eta inguru
alda (e)zazue dena.

DIAS Y FLORES

(Silvio Rodríguez)

Si me levanto temprano
fresco y curado claro y feliz
y te digo: voy al bosque
para aliviarme de ti
sabes que dentro tengo un tesoro
que me llega a la raíz.

Si luego vuelvo cargado
con muchas flores
y mucho color
y te pongo en la risa
en la ternura, en la voz
es que he mojado en flor mi camisa
para teñir tu sudor.

Pero si un día me demoro
no te impacientes
ya volveré mas tarde
será que a la mas profunda alegría
me habrá seguido la rabia ese día
la rabia simple del hombre silvestre
la rabia bomba, la rabia de muerte
la rabia imperio asesino de niños
la rabia se me ha podrido el cariño
la rabia madre, por Dios, tengo frío
la rabia es mío, eso es mío, solo mío
la rabia bebo pero no me mojo
la rabia miedo a perder el manojito
la rabia hijo, zapato de tierra
la rabia dame o te hago la guerra
la rabia todo tiene su momento
la rabia el grito se lo lleva el viento
la rabia el oro sobre la conciencia
la rabia coño, paciencia, paciencia
la rabia es... mi vocación.

Si hay días que vuelvo cansado
sucio de tiempo sin para amor
es que regreso del mundo
no del bosque, no del sol
en estos días, compañera,
ponte alma nueva
para mi mas bella flor

BIZITZAREN ALDE ARGITSUA

(Monty Python/Edorta Amurua)

Bizitzak duenez / Hainbat gauza aldrebes
Sarri galtzen dugu pazientzia
Zaudenean larri / Has zaitez kantari
Poztuko da zure kontzientzia
Eta... **BILATU BETI ALDE ARGITSUA**
BIZITZAREN ALDE ARGITSUA

Batzuetan da bizitza / Ustela eta bortitza
Baina ezin da galdu irria
Tristezia utzi / Irrifarra jantzi
Ospatu ozen udaberria
Eta... **BILATU BETI ALDE ARGITSUA**
BIZITZAREN ALDE ARGITSUA

Bizitza hau noizbait / Bukatuko bazaik
Hartu behar bezala, laguna
Eta hilko garenez / Ez galdu, mesedez
Irri egiteko gaitasuna
Eta... **BILATU BETI ALDE ARGITSUA**
HERIOTZAREN ALDE ARGITSUA

Jarrita pentsaka / Bizitza da kaka
Hori beti izan da horrela
Baina gogoratu / Kaka baliatuz
Ongarria egin daitekeela
Eta... **BILATU BETI ALDE ARGITSUA**
BIZITZAREN ALDE ARGITSUA

Gure osasuna / Edo maitasuna
Aitzakiak dira sufritzeko
Minez zaudelarik / Ez galdu aukerarik
Bizitzari adarrak jartzeko
Eta... **BILATU BETI ALDE ARGITSUA**
BIZITZAREN ALDE ARGITSUA

FAMA TXARRA

(G.Brassens/A.Duhalde)

Ez diot harrokerian, fama txarra dut herrian
Mintzatu edo isildu, lotsagabe naute deitu
Ez dut nehorri kalterik egiten
Nire bidexka dut zintzo segitzen

**BAINA JENDEEK EZ DUTE MAITE
BEREN GISA BIZI EZ BAZARE** (Bis)

Nitaz dira gaizki mintzo;
mutuak ez, bistan dago

Festa nazionalean ni gelditzen naiz ohean
Musika militarri gorroto diot aspaldi
Ez dut nehorri kalterik egiten
Musika hori ez bazait gustatzen

**BAINA JENDEEK EZ DUTE MAITE
BEREN GISA BIZI EZ BAZARE** (Bis)

Denen behatz puntan nago;
besomotzenezan salbo

Iheslari bat ikustean, zakurrak bere atzean
Harrika uxatzen ditut, beharduna laguntzen dut
Ez dut nehorri kalterik egiten
Zakurrak neri ez zaizkit gustatzen

**BAINA JENDEEK EZ DUTE MAITE
BEREN GISA BIZI EZ BAZARE** (Bis)

Lasterka ditut ondotik;
denak, zango-motzak ezik

Profeta ez izan arren ba dakit zer pentsatzen duten
Soka bat dute hartuko, lepotik dautate pasako
Ez dut nehorri kalterik egiten
Beren bideak ez ba ditut hartzen

**BAINA JENDEEK EZ DUTE MAITE
BEREN GISA BIZI EZ BAZARE** (Bis)

Zintzilik ikusiko naute;
itsuek ez, hainbat hobe!

EN LA COSTA SUIZA

(Javier Krahe)

En un pueblo de allá por la costa suiza,
-ohé, ohé-,
un viejo pescador,
borrachín, tranquilo, sin dar la paliza
a nadie de su alrededor,
pretendía vivir a su manera,
que era:
salir a pescar
y pescar
boquerón, calamar,
o alguna ballenita
-que también las da el mar-
y después regresar
con la frente marchita,
como dice el cantar
que se suele volver.
Y vender el pescado en la lonja,
boquerón, calamar,
una esponja
-que también las da el mar-,
y cobrar
lo que hubiera ganado
al vender el pescado.
Y marcharse a gastar
lo que hubiera cobrado,
en comer
y en comprar
cuanto es menester
poseer.
E invitar a beber
y beber hasta el anochecer.
Y arrojar lo que hubiera sobrado
del dinero cobrado,
arrojárselo al mar,
devolver.
Devolverle el dinero.
Y cada amanecer
empezar desde cero.

Pero muchos vecinos denunciáronle al pobre
-ohé, ohé-
por contaminar.
Que sus pocas monedas,
sus "vertidos de cobre",
ponían perdidito el mar.
Y no pudo vivir a su manera,
que era:
salir a pescar
y pescar
boquerón, calamar,
o alguna ballenita
-que también las da el mar-.
Y después regresar
con la frente marchita,
como dice el cantar
que se debe volver.
Y vender el pescado en la lonja,
boquerón, calamar,
una esponja
-que también las da el mar-.
Y cobrar
lo que hubiera ganado
al vender el pescado.
Y marcharse a gastar
lo que hubiera cobrado,
en comer
y en comprar
cuanto es menester
poseer.
E invitar a beber
y beber hasta el anochecer.
Y arrojar lo que hubiera sobrado
del dinero cobrado,
arrojárselo al mar,
devolver.
Devolverle el dinero.
Y cada amanecer
empezar desde cero

GURE BIDE GALDUAK

Benito Lertxundi

Gu gazteok gaur gabiltza
Mundu galdu honetan,
Gerra bat barruan dugula
Zer egin jakin gabe,
Gurasoen mundu aldrebes hau
Ez dugu onartzen,
Diruaren morroi izaten
Erakutsi digute

Illunpe horrek bakardade
Galduan utzi gaitu,
Argirik gabeko bideak
Etorkizunik ez du,
Bizimodu lasai batengatik
Idealak galdu,
Bizitzaren gauz ederrenak
Dizkigute zapaldu

Gizonak kartzelan daude
beren herriagatik
Jainkoak beharko lagundu
guk ahaztu baditugu
Maitasun hitzak nahi nituzke esan
Baiñan gaur ezin dut
Gure bide galduak
Kalte hau ekarri du

ESKERRAK BIZITZA

(Violeta Parra / Amets Arzallus)

Eskerrak bizitza eman didalako
Begien kabi bat, nik zabaltzerako
Kolore guziak bazituelako
Zeru altuetan izar gorri asko
Eta haien artean maitea han dago

Eskerrak bizitza eman didalako
Entzumen oso bat ni ohartzeko
Gauak kilker baten hotsa zuelako
Mailuen oihuak eta oihu gehiago
Ta haien artean maitea han dago

Eskerrak bizitza eman didalako
Ama hizkuntza bat nik ulertzerako
Pentsatzeko hitzak bazituelako
Sehaska kantuak ta lanturu frango
Ta haiek entzuten maitea han dago

Eskerrak bizitza eman didalako
Hankara pausoa ni ibiltzerako
Mendi ta hiriak hor zituelako
Desertu urdin bat zenbat portu galkor
Ta haien artetik maitea noiz dator

Eskerrak bizitza eman didalako
Irrifar goxo bat ta putzu bat malko
Bide lokaztu bat ez dakit norako
Txori zauritu bat bihotz barnerako
Ta haren oinetan maitea han dago

ABSTINENTZIA

Xabier eta Piter (A. Egaña)

Hau da desastrea! Ez al da tristea?
Tentazioz betea dago mundua!
Ta nola gaztea berez den trastea
Komeni zaio hau ikastea

Zurrutean hasten baldin badira
Buru galdu/Zorrak ugaldu
Lasai geratzeko bide bakarra:
ABSTINENTZIA!

Drogarekin hasten badira
Erdi tonto/Txika y tanto!
Lasai geratzeko modu bakarra:
ABSTINENTZIA!

Larru jotzen hasten baldin badira
Arriskutan/Sidan eskutan
Lasai geratzeko modu bakarra:
ABSTINENTZIA!

Mahonesa jaten baldin badute
Salmonella/Omen dutela
Lasai geratzeko bide bakarra:
ABSTINENTZIA!

ZALDIEKIN GOAZ MENDIRA

(Portabales / Amurua)

Bide luzea egin ta gero
Kostaldetikan mendira
Nafarroako herriaetatik
Kantuak zabaldu dira

Kubatarrak ez gara
Bai mendiko euskaldunak
Baina gure nortasuna
Gutziz guajiroa da

Zaldiekin goaz mendira, Zaldiekin mendian gora

Guajiro jaio nintzen
Ta oraindik naiz guajiro
Jaio ezkerro berriro
Berdin egingo nuen

Zaldiekin goaz mendira...

Guajiro izatea
Ez da aukera erreza
Gure kanta ez da kexa
Baizik dantzan hastea

Zaldiekin goaz mendira...

Bizi poza da gure
Eguneroko kontua
Mendiak eta kantuak
Ematen digutena

Zaldiekin goaz mendira...

AGURE ZAHARRA

(Li.Llach/X. Lete)

Agure zahar batek zion bere etxe aurrean
Goizean goiz lantokira irteten nintzanean
Ez al dek gazte ikusten gure hesola zein dan
Desegiten ez badugo bertan galduko gera

BAINA GUZTIOK BATERA SAIATU HURA BOTATZERA
USTELTZEN HASIA DAGO TA LAISTER ERORIKO DA
HIK BULTZA GOGOR HORTIKAN TA BULTZA NIK
HEMENDIKAN
IKUSIKO DEK NOLA NOLA LAISTER ERORIKO DAN

Bainan denbora ba doa, nekea zaigu hasi
Eskuak zartatu zaizkit eta indarrak utzi
Usteltzen ba dago ere karga ba du oraindik
Berriz arnasa hartzeko esaigun elkarrekin

BAINA GUZTIOK BATERA SAIATU HURA BOTATZERA
USTELTZEN HASIA DAGO TA LAISTER ERORIKO DA
HIK BULTZA GOGOR HORTIKAN TA BULTZA NIK
HEMENDIKAN
IKUSIKO DEK NOLA NOLA LAISTER ERORIKO DAN

Agure zaharra falta da gure etxe ondotik
Haize txar batek hartu ta eraman du hemendik
Haur batzuk ikusten ditut eta inguraturik
Aitona zaharraren kanta nahi diet erakutsi

BAINA GUZTIOK BATERA SAIATU HURA BOTATZERA
USTELTZEN HASIA DAGO TA LAISTER ERORIKO DA
HIK BULTZA GOGOR HORTIKAN TA BULTZA NIK
HEMENDIKAN
IKUSIKO DEK NOLA NOLA LAISTER ERORIKO DAN

ESE LOCO MATERIAL

Los Gandules

Dicen algunos que es el material del futuro,
Lo mismo sirve para embalar,
que te sirve para aislar,
Dicen algunos que al frotarlo les da dentera,
Al desembalar la tele ,
o la tabla de planchar.

Pero si quieren estar calenticos en su casa de la sierra,
No les queda más remedio que forrarla con poliespaaaaan

**Poliespan, poliespan, que invento el poliespan,
Es poliestileno expandiido,
¿Por que hay poliespan?
seguro hay poliespan
Si rascas la pared te lo encontrarás**

Dicen algunos que no se pudre ni enmohece,
y que es idoneo para el envasado de muchos productos
frescos
Puede que lo tecnicismos os estén despistando,
Para que nos entendamos,
Hablamos del corcho blancoo

Lo hemon visto en bandejas de carne ,
envolviendo unas chuletas,
Lo hemos visto en ascensores para no rallarlos cuando hay
refoormas.

**Poliespan, poliespan, que invento el poliespan,
Es poliestileno expandiido,
¿Por que hay poliespan?
seguro hay poliespan
Si rascas la pared te lo encontrarás**

MARILYN

(Itoiz)

Atzo gabaz irten nintzen
Ta ikusi ez neonezko argirik
Ameriketatik etorri zen
Artzai haren baserrin

**OH, MARILYN, MARILYN,
ARROSA ETA KLABELIN
XIMELDU DA HIRE OROIMENA...**

Artzainaren mirespena
Debozia bihurtu zen
Marilynen ezpain luzeekin
Irudi haundi bat
Zintzilikatu zuen

**OH, MARILYN, MARILYN,
ARROSA ETA KLABELIN
XIMELDU DA HIRE OROIMENA...**

Ze festa eder ziren
Sagardoa eta jazzmana
Trikitixa, rock'n rolla eta
Latino latino ere....

**OH, MARILYN, MARILYN,
ARROSA ETA KLABELIN
XIMELDU DA HIRE OROIMENA...**

EUSKAL ROCK AND ROLL

Niko Etxart

Izan gira Euskal Herrin rock&rollin...

Gaüa heldü denin
adiskidiekin
juiten garela bestaka...

Izan gira Euskal Herrin rock&rollin...

Bal-en urhentzin
ene maitea
eneki jin zite "au coucou des bois"

Izan gira Euskal Herrin rock&rollin...

Zü eta ni
biak goxoki.
dantzan dantzan rock&rolling

Izan gira Euskal Herrin rock&rollin...

IBILTARIARENA

(J.Gartzia/Tx.Artola)

Agur ta banoa ni ez bait naiz hemengoa
Ez dut aberririk libertatea ezik
Ta aspaldi luzean bizi naiz herbestean
Inoren etxean, arrotzen artean

Agur ta banoa, ni ez bait naiz hemengoa
Ez dut ekipairik neure kitarra baizik
Ta zure itzala ipar-orratz bezala
Zama arina da, amaigabea bidea

Agur ta banoa, ni ez bait naiz hemengoa
Ez dut helbururik ibiltzea besterik
Nekeen gainetik, ametsaren azpitik
Haizeak naroa, ez naiz inon inongoa...